

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

311

Urriak 15, 2017



## Gurseko esparruari buruzko dokumentala egin du Askatasunarte elkarteak

- 2** Irun atzo Irun Gaur
- 3** Beldur Barik programa
- 4-5** Kataluniako egoera
- 6-7** Gurs-Dokumentala
- 8** Kirolak: Mikel Redondo
- 9** Kirolak: Jon Urtizbera

- 10** Kolaborazioa: Gorka Martinez
- 11** Haurren leihoa
- 12** Gazteen lanak
- 13** Gazte boluntariora
- 14** Gazte informazioa
- 15** Agenda

## PIO XII PLAZA



8129



1960ko urriaren 26ko Osoko Bilkuran jarri zioten izena, Alkatetza-Lehendakartzak proposatuta. Serapio Mujika eta Aureliano Lopez Becerra kaleen artean kokatzen den plaza da.

Zetozen garaiak aurrikusiz bezala, sinistuneren erlijotasuna eta mirespena epeltzeko puntuan zeudelarik, seminarioetan bokazioen beheraldia hasi zenean, kleroaren sukularizazioa sendo hasia zelarik, gainera zetorren "sinismen falta" geldiarazi nahian, badirudi udalak fedea indartzen ahalegindu nahi izan zuela, zenbait kalari Elizari loturiko santuen eta gizonen izena ipinita. Horregatik, eta beste zenbait arrazoiengatik, Pio XII izena ipini zioten hiriko plaza bati.

Eugenio Pacelli Erroman jaizo zen 1876an italiar nobleziako familia batean. Apaiz ikasketak egin ondoren, 1899an apaiz egingo zen, eta segituan, Zuzenbide Kanonikoaren katedra bat emango zioten. Beranduago, martxoaren 2an, Aita Santu aukeratuko zuten, Pio XII izena hartuz.

Bigarren Mundu Gerra izan zen, Pio XII.arentzat, arazorik handiena. Bere pontifikatua hasi berria zuen, batzuek bere isiltasun ofiziala salatuko zutelarik, nazien aldekotzat eta antikomunistatzat hartuz. Hala ere, badira beste autore batzuk esaten dutenak bere lehen entziklikatik "Summi pontificatus" (1939), bakerako benetako baldintzak ezarri zituela.

**Iturria: José Monje  
Irungo kaleen izenak**

## IRUNERO

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Joseba Arozena  
Unai Oiartzun

**Euskara zuzentzilea:**

Unai Oiartzun

**Publizitatea:**

Sonia Garcia Olazabal  
Amaia Terrazas  
Ion Otxoa

**Diseinua:**

Andrea Gomez Arocena

**Argitaratzailea:**

837 comunicación y publicidad S.L

**ISSN:**

1134-0606

**Lege gordailua:** SS-230-94

**Tel:** 943 04 20 52

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



# Beldur Barik programako lehiaketan izena eman daiteke

Indarkeriari eta jarrera matxistei nola aurre egiten dieten azaldu beharko dute gazteek



Azaroak 13ra arte zabalik dago Beldur Barik programako bideo lehiaketako izen-ematea. 12 eta 26 urte arteko nerabeei eta gazteei zuzendutako ekimena da. Edozein lan artistiko aurkez dezakete, ikus-entzunezko formatuan, [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) web gunean. EAE mailan aurrera eramaten den programa batean kokatzen da Irungo lehiaketa.

Bi kategoria egongo dira, 12 eta 17 urte arteko nerabeena, eta 18 eta 26 urte arteko gazteena. Kategoria bakoitzeko irabazleak 300 euro jasoko ditu, kirol materialean, liburuetan, diskoetan edo informatika materialean gastatzeko. Azaroaren 24an emango dute irabazleen berri, eta sarien banaketa hurrengo egunean izango da, Amaia Kultur Zentroan. "Berdintasun ezari eta indarkeria sexistari haien egunerokoan nola aurre egiten dieten azaldu dezaten nahi genuke", adierazi du Sergio Corchón Irungo Udaleko Gizarte Ongizatea arloko ordezkariak.

Izan ere, lanen kalitate teknikoaren edo artistikoaren gaitetik, mezuaren kalitatea baloratuko du epai-mahaiak: hausnarketa eta eztabaida pizteko gaitasuna, nesken ahalduzaren eta mutilen ardura hartzearen ikuspuntutik. "Oso garrantzitsua da gazteak inplikatzeko, gure gizartean oinarritzkoak eta beharrezkoak diren balioak barnera ditzaten", aipatu du Corchónek. Bakarka, taldeka, edo ikasgelen edo ikastetxeen izenean aurkez daitezke lanak.

#### Beldur Barik tailerrak ere egongo dira

Programa beraren baitan, Beldur Barik tailerrak egongo dira, lehen aldiz Irunen. DBHko 2.mailako gazteei zuzendutako tailerrak dira. Ikastetxe bakoitzean, hiru orduko sesioak egingo dituzte ikasgela bakoitzeko. Izen-emate epea amaituta, bost dira parte hartuko duten ikastet-

xeak: San Vicente de Paul, Eguzkitza, Hirubide eta Toki Alai. 368 neska-mutil izango dira parte hartzaileak, guztira. Urrian, azaroan eta abenduan burutuko dituzte tailerrak.

Ianire Estebanez eta Estibaliz Linares psikologoek zuzenduko dituzte saioak. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan espezialistak dira, gazteekin formazio eta sentsibilizazio jarduerak egiten esperientzia handia dutenak. Errespetua eta tolerantzia sustatzea, eta estereotipo sexisten eta indarkeria matxisten aurreko jarrera kritikoa bultzatzea izango dituzte helburu. Joana Regueiro Gizarte Ongizatea arloko teknikariak azpimarratu du mikromatxismoetan jarriko dutela arreta berezia: "Matxismo sotilagoa eta indarkeria sinbolikoa identifikatuko dituzte". Neskak ahalduzko eta mutilen "korporatibismo maskulinoa" rekin apurtzeko lan egingo dutela erantsi du Regueirot.

**"Oso garrantzitsua da gazteak inplikatzeko, gure gizartean oinarritzkoak eta beharrezkoak diren balioak barnera ditzaten"**

Sergio Corchón, Gizarte Ongizatea arloko ordezkaria



**"Matxismo sotilagoa eta indarkeria sinbolikoa identifikatuko dituzte"**

Joana Regueiro, Gizarte Ongizatea arloko teknikaria

**Olaizola**

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585  
[info@inmobiliariaolaizola.com](mailto:info@inmobiliariaolaizola.com)  
[www.inmobiliariaolaizola.com](http://www.inmobiliariaolaizola.com)

# Kataluniako egoera, bertatik-bertara

## Bartzelonan bizi diren irundarrek egin dute aktualitate gai nagusiaren inguruko analisia

Aktualitatearen lehen lerroan egon da Kataluniaren independentziaren gaia, azken hilabete honetan. Europako egunkari nagusietako azaletara ere iritsi da, urriaren leheneko erreferendumaren eta haren inguruko gertakarien harira, batez ere. Tentsio eta ziurgabetasun egunen ondoren, urriaren 10ean, Carles Puigdemont Kataluniako presidentea independentzia deklaratu eta behin-behinean eten du, elkarrizketarako eskua luzatuz. CUPEko gobernukideak haserrarazi ditu adierazpenak, eta hilabeteko epea eman diote negoziatioetarako. Espainiako Gobernuak, aldiz, ez du elkarrizketarako asmorik.

Komunikabideetan etengabea da gaiari buruzko informazio eta iritzi jarria. Baina Katalunian bertan, Bartzelonako kaleetan egoera nola bizi duten jakiteko, bertan bizi diren irundarregana jotzea izan daiteke aukera aproposa. Alejandro Lopezek bi urte daramatza Bartzelonan lanean eta bizitzen, eta ez du independentzia aldarrikatzeko manifestazioetan parte hartu, ezta Espainiako batasunaren aldekoetan ere. Hasier Narbartek denbora gehiago darama Bartzelonan, zazpi urte, eta murgilduta dago politika mugimenduan eta auzolanean. Urriaren leheneko erreferendumaren antolakuntzan parte hartu du.



Autobus turistikoak beteta egoten dira egunero. Monumentu nagusien aurreko ilarak ere, ohikoak dira Bartzelonan. Baten bat interesatzen da, galderak egiten ditu, baina orokorrean, aktualitate aparta daude bisitariak. Hirian bizi eta lan egiten dutenentzat, ordea, ezinezkoa da hori. "Lantokian, eta nire lagunartean, etengabeak dira gaiaren inguruko eztabaida sutuak", baieztatu du Alejandro Lopezek: "Gustatuko litzaidake ezetz esatea, baina uste dut haustura soziala benetakoa dela". Elkarrizketaren aldekoa da Lopez, eta banderarik gabeko kontzentrazioan parte hartu zuen, urriaren 7an: "Uste dut, momentu honetan, jarrera zuhurrena dela".

Parte hartu ez bazuen ere, Lopezek aitortu du harriritu geratu zela, urriaren lehenean, bozkatzeko mobilizazio erraldoiarekin: "Halakorik ez dut inoiz ikusi. Etxe bloke osoei buelta ematen zieten ilarak zeuden, bozkatzeko zain zegoen jendearekin. Horren aurrean, konturatzen zara zerbait gertatzen ari dela, eta irtenbide bat eman behar zaiola". Erreferendumaren antolaketan aritu zen, hain zuzen ere, Hasier Narbarte, Bartzelo-

nako Sants auzoan. Lan handiko egunak, baina emozioz beterikoak izan zirela adierazi du: "Egunean zehar momentu kaotikoak egon ziren, poliziaren esku hartzearekin, ondoko auzoetan eta herrietan gertatzen ari zenarekin... Baina gau aldera poza nagusitu zen".

Erreferendumaren antolaketan Kataluniako gobernuak zuzendu badu ere, herritarren parte hartzea azpimarratu du Narbartek: "Anekdotak gisa, aipatu, internet konexioa erori zenean, bizilagun batek kable bat bota zuela, haren routerra eskaintzeko. Papeletak eta hautetsontziak etxeetan gorde zituen jendeak, eta inori ezer esan gabe ekarri. Poliziaren aurrean guzti hori lortzea sekulakoa izan zen". Errepresioa gogor salatu du Hasier Narbartek, eta hausnarketarako deia egin du. Baina halako erantzun baten aurrean, erreferendumaren aldeko kataluniarrek hartutako jarrera goraiatu du: "Gertatutako guztiaren aurrean lasaitasunez erantzun dute herritarrek, baina era masiboan, beldurrik gabe kalera atereaz, haien nahiak aldarrikatzera".

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN  
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com  
www.felixmanso.com

## “Prozesu honek, denontzako hobia izan daitekeen errealitate batetara eramán gaitzake”

Hasier Narbarte

### Urriaren lehenaren ondorengo egunak

Lanuztea eta independentziaren aldeko manifestazioak etorri dira urriaren lehenengo egunetan. Baina baita Espainiako batasunaren aldekoek antolatutakoa ere. Hasier Narbarte onartu du badakiela Katalunian independentziaren aurkako jende asko dagoela, eta hori kontuan hartu beharra dagoela. Galdera luzatu du, alabaina: “Haien ligan jokatzén hasten baldin bagara, eta haiek diote milioi bat lagun izan direla, zer esan nahi du, gainerako sei milioiak independentistak garelá? Guztiz irabazi dugu orduan?”. Bestalde, manifestazio hartan izandako iruditeria eta adierazpen faxistak salatu ditu Narbarte. Alejandro Lopezek uste du bi muturrak “erradikalizatu” direla: “Gorrotoa sortu da, alde batetik bestera. Eta ez diot zentzurik ikusten, Catalunya independente izan edo ez”.

Urriaren 10ean iritsi da deklarazio hori, Carles Puigdemontek Parlamentean egin dako adierazpenean. Segidan, ordea, ñabardura egin du. Behin-behinean eten du deklarazio hori, negoziatzioei bidea irekitzeko. Aurreikusitako baino ordu bete beranduago eskaini du hitzaldia, CUPEko gobernukideekin izandako tentsioen ondorioz. Alejandro Lopez iruditzen zaio barne tentsioak saihestezinak zirela: “Helburu bera dute gobernukide diren alderdiek: independentzia. Baina iritzi eta ideologia ezberdin askotako jendea dago bertan: Convergenciak, duela ez horrenbeste, Aznarren gobernu bat babesten zuen. Beste aldean, CUPEkoak, antisistemak dira, eta haiek gobernu batean egoteak ez du zentzu handirik”.

Egoerak arlo ekonomikoan izan duen eraginak oihartzuna eduki du. Sabadellek eta Caixabank-ek, Kataluniako banketxe nagusiek, haien egoitza sozialak lekualdatu dituzte, Kataluniatik atereaz. Gas Natural, Abertis eta beste zenbait enpresa handik haien bidea jarraitu dute. “Haien interesak herritarren nahien gainetik jartzén ari dira enpresa horiek. Gizartearen gainetik daude?”, salatu du Hasier Narbarte. Dena den, lekualdatze horien eragin erreala zalantzan jarri du: “Egoitza aldatu dute, baina jarduera ekonomikoa ez da Kataluniatik joan. Ekonomikoki ez da galera handia izan, hori ekonomialariek esaten dute”. Ados dago Alejandro Lopez, eta enpresek, irudi aldetik, kanpora begira hartutako erabakiak izan direla uste du.

Bi irundarrek argi dute Espainiako gobernuak ez duela elkarriketarako borondateirik. 1978ko konstituzioko 155. artikulua aplikatu dezakeela uste dute, Kataluniaren autonomia bertan behera uzteko. Bestelako neurriak ere heldu daitezkeela pentsatzen du Narbarte: “Dakiten bakarra egingo dute: errepresioa, atxilotzeak... Ez dute konponbiderako deus eskaintzen”. Ez da erraza datozen asteetan gerta daitekeena aurreratzea. Hasier Narbarte independentziaren alde egiten du, zalantzarik gabe. Ez du uste prozesu erraza izango denik, presio handiak egongo direlako. Baina urriaren leheneko emaitzek legitimitatea ematen diotela iruditzen zaio.

### Bitartekaritza eta elkarrizketa

Kanpora bideratu dira begirada asko, Europako erakundeek eta beste estatuak hartutako jarrerén, eta balizko bitartekaritza batzuen zain. Horren alde egin du Lopezek. Baina ez da baikorra: “Ez dirudi inork laguntzeko asmoa duenik”. Hasier Narbarte ez du inoiz Europako erakundeengandik gehiegi espero izan. Orain, ordea, pentsatzen du haien posizioa hartu beharko dutela: “Argi eduki behar duguna da European, eta mundu mailan ditugun erakundeak, estatu lagunen artekoak direla. Horregatik, Espainiaren alde jarriko dira gehienak. Baina independentzia deklaratu, subjektu berri bat sortuko da, Katalunia, eta horri erantzun bat eman beharko diote”. Independentzia deklaratzeari berebiziko garrantzia eman dio, beraz, Hasier Narbarte.

Alejandro Lopezek, aitzitik, pentsatzen du Kataluniaren independentzia ez dela bidegarria: “Kataluniako gobernuko jende batek ere esan du, Artur Masek berak. Presio neurri gisa ondo dagoela, baina momentu honetan Katalunia ez dagoela independentziarako prestatuta. Iruditzen zaidana da, baita ere, jende asko ez dela jabetzen independentziak dakarrenaz”. Eztabaida mahai gainean dago. Hasier Narbarte bestelako iritzia du: “Gaur egun, ikasle mugimenduan eta sexu askapenerako lanean murgilduta nabil. Uste dut, Kataluniako prozesu honek, denontzako hobia izan daitekeen errealitate batetara eramán gaitzakeela. Bizitzeko beste modu asko ireki ditzake”. Herritarren erabakitzeko eskubidea aldarrikatu du Narbarte, beti ere. Haren alde, era masibo eta baketsuan mobilizatzea.

## “Iruditzen zait jende asko ez dela jabetzen independentziak dakarrenaz”

Alejandro Lopez

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus) - [info@bertako.eus](mailto:info@bertako.eus)

**bertako**  
igogalua | ascensores  
igogailuen mantentzen-lanak

- ✓ 24 orduko asistentzia abixu guztientzat
- ✓ Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak
- ✓ Orotariko zerbitzua 100 € -tik aurrera
- ✓ Euskerazko zerbitzua
- ✓ Eskatu zure aurrekontua 943903450

# Oroitzapenak ahanzturatik berreskuratuz

## Bearnoko Gurs errefuxiatu-kontzentrazio esparruari buruzko dokumentala egin du Askatasunarte elkarteak

*Gurs. Recuerdos desde el olvido* dokumentalaren estreinaldia hartu zuen Amaia Kultur Zentroak irailaren 19an. Nazioarteko dimentsioa duen gaia lantzen du filmak, 1939tik 1946ra arteko epean, hainbat herrialdeetako errefuxiatuak eta presoak pasa baitziren bertatik. 60.000 pertsonatik gora, guztira. 1.073 hilobi, eta hiltzera bidalitako 12.000 gizon-emakume. Horiexek, Gurseko esparruak utzitako zenbait ondorio. Natalia Cambronero ekoizle irundarrak argudiatu du aurkezpenerako bere hiria hautatu izanaren arrazoia: "Irunek muga irudikatzen du, Gurserako pasabidearen sinboloa da. Nabarmendu beharra dago, era berean, Irungo 300 familia pasa zirela Gurseko esparrutik".



**"Behin eta berriro birplanteatu dugu proiektua, eta aberastuz joan da denborarekin"**

Alejandro Santos, zuzendaria

**"Oso pozik gaude orain arte izan duen harrerarekin, eta ibilbide oparoa izan dezan espero dugu"**

Natalia Cambronero, ekoizlea



Kasualitatez izan zuten Natalia Cambronero eta Alejandro Santosek Gurseko esparruaren berri. Lasaitasun bila heldu ziren Gurs herrira, hiritik aldendu eta landan etxe bat erosteko asmoz. Irundik ordu eta erdira dago Gurs, Bearnon, Gave d'Oloron ibaiaren haranean. Bertan bizi dira gaur egun, Cambronero eta Santos. Kontzentrazio esparru izandako gunean, interpretazio zentroa dago, eta bisita egin zioten, handik bizirik irtendako gizon batekin. "Adinagatik, edo ezjakintasunagatik, ez genuen Gurseko esparruaren historia ezagutzen. Harrituta geratu ginen", aitortu du Alejandro Santosek.

1939 urtean eraiki zuten esparrua, Frantziako gobernuaren aginduz, Espainiako Gerra Zibileko errefuxiatuak hartzeko. Halako hogeita bost esparru egon ziren, guztira, Frantzia hegoaldean. 28 hektareako espazio batean, 382 barrakoi eraiki zituzten. 5x30m-ko neurria zuten barrakoiak, eta bakoitzean, 60 lagun ere sartu izan zituzten. 1939ko maiatzean, 19.000 errefuxiatu zeuden Gursen, horietatik 6.500, euskal herritarak. Espainiako estatuko beste lekuetakoak, eta Nazioarteko Brigadetan parte hartu zuten boluntario atzeritarrak ere bazeuden. Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, eta denbora labur batez, Frantziaren etsaiak ziren herrialdeetako presoak kontzentratzeko erabili zuten.

1940an Frantziak eta Alemaniak armistizioa sinatu eta gero, Vichyko gobernu kolaborazionistaren mende geratu zen Gurseko esparrua. Hortik aurrera, judutarrak, ijitoak, homosexualak, eta Alemania naziarekiko disidente politikoak giltzaperatu zituzten Gursen. Alemaniako sarraski-esparruetara bidali zituzten horietako asko. Natalia Cambronero eta Alejandro Santosek azpimarratu dute bereziki deigarria iruditu zitzaizela esparruaren barruan, alanbradetatik atea gabe, errefuxiatuek lehenengo, eta presoek ondoren, aurrera eraman zuten kultur mugimendua. Cambronero azaldu du: "Bi fase egon ziren: Gerra Zibilaren ondorengoan, ez zen kotsakratutako artistarik egon. Adierazpen artistikorako, eskura zuten bakarra erabili zuten: buztina. Salaketa artea izan zen, batez ere. 1940-41etik aurrera, artista kotsakratuak agertu ziren, Alemanian erakusketak egindakoak, eta Hitlerrek degeneratutzat hartu zituenak".



### Erakusketa lehenengo, dokumentala ondoren

Lehen bisita haren ondoren eratu zuten Askatasunarte elkarte, artearen lengoia erabilita, Gurseko esparruan egondako jendea omentzeko helburuarekin. 2014an martxan jarri zuten, eta nazioarteko arte lehiaketa bat izan zen haien lehen ekimena. "Munduko leku askotako artisten parte hartzea lortu genuen. Ondoren, mugaz gaindiko erakusketa bat antolatu genuen lan haiekin. Erakusketarekin batera, Gurseko esparruaren historia kontatzen zuten panel batzuk zeuden. Bertan egon ziren artista batzuen obrak ere utzi zizkiguten", adierazi du Alejandro Santosek.

Erakusketarekin alde batetik bestera zebiltzala, esparruan egondako eta bizirik irtendako jendea ezagutu zuten. Horrek dokumentala egitera bultzatu zituela aipatu du Santosek: "Iruditu zitzaigun sekulako zortea zela jende hori ezagutzea, eta denbora luzez biziko ez zirenez, haien testigantzak grabatzea erabaki genuen". Hasieran, proiektuak ez zuen aurreikuspenik, ezta egiturarik ere.

Denborarekin, ordea, dokumentalari forma emanez joan ziren. Artxiboko filmaziorik ez dago, eta argazkiak topatzea ere, zaila izan zitzaien. Pauen dagoen Pirinio Atlantikoetako departamentuko artxiboan ekin zioten bilaketari. "Pixkanaka, informazioa eta kontaktuak lortuz joan ginen", adierazi du Alejandro Santosek: "Urte eta erdiko lana izan da. Behin eta berriro birplanteatu dugu proiektua, eta aberastuz joan da denborarekin".

Hiru ildo nagusi ditu dokumentalak: testigantzak, azalpen historikoak eta hausnarketak. Gursen egondako mugimendu artistikoari ere tarte zabala eskaini diote. "Gursen historiak, XX.mendeko arorik ilunenean milaka lagunek bizi izan zuten deserrotze hura irudikatzen du. Baina era berean, giza eskubideen, demokraziaren eta berdintasunaren aldeko borroka ere bai", hausnartu du Santosek.

### Ezagutza, akatsak errepikatu ez daitezten

Dokumentalaren zuzendariak uste dute erdietsi duten

lorpenik handiena, jende askorentzat ezezaguna zen historia azaleratzea izan dela. Arte erakusketari esker, 12.000 lagunengana iritsi ziren. Dokumentalarekin, Bilbon, Baionan, Altsasun, Huescan eta Madrilen dituzte emanaldiak, oraingoan, urtea amaitu aurretik. Datorren urterako, frantsesera itzuli eta Bordelen eta Parisen emango dute. "Oso pozik gaude orain arte izan duen harerarekin, eta ibilbide oparoa izan dezan espero dugu", aitortu du Natalia Cambronerok.

Iragana ezagutzeaz harago, arazo garaikideez hausnartzeko aukera ere ematen du Gursen historiak. Zentzu horretan, errefuxiatuen egoera gogorarazi nahi izan du Santosek: "Beti esaten da akatsak ez errepikatze gogoratu behar dela iragana. Baina ez dakit 70 urte barru ez ote garen antzeko gauzak planteatzen ariko". Momentuz, belaunaldi berriek ere Gursen historia ezagutu dezaten, Iparraldeko eta Hegoaldeko zenbait ikastetxetan landuko duten ikus-entzunezko materiala prestatzen ari dira Askatasunarte elkarteak kideak.



Anaka kalea, 11  
IRUN  
943.61.54.57

TABISA  
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49  
HONDARRIBIA  
943.64.54.57



BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

MIKEL REDONDO, C.D. Bidasoako jokalaria:

## “Azken ahaleginak Irunen egin nahi nituzke, Bidasoaren elastikoa defendatuz”

Europako Errekopa irabazi zuen Elgorriaga-Bidasoak 1997an. Azken titulua izan zen, urrezko aroaren amaiera. Hurrengo urteetan, hala ere, jokalaria atzeritarren zerrenda luzea izango zen, oraindik, Artalekuko taldean. Horiak horrela, 1998an, Irundik hanka egin behar izan zuen Mikel Redondo harrobiko jokalaria (Irun, 1979). Orduz geroztik, hamalau talde ezagutu ditu, estatuko eta atzerriko ligetan ere bai. 2006/2007 sasoiaren itzuli zen, urte betez, Bidasoak maila galdu zuenean, hain zuzen ere. Arantza hori kentzeko, bere azken urteak etxeko taldean ematera heldu da 38 urteko pibote beteranoa.

### Zein esperientzia azpimarratuko zenuke, kanpoan egon zaren urteetatik?

Lehen esperientzia Kanaria Handian izan zen, Galdarren, eta egia esan, hura Afrika iru-ditu zitzaidan. Jendea txankletetan ibiltzen zen, erdi biluzik. Iruditzen zitzaidan eraikin guztiak erdi eroriak zeudela. Dena nire etxearekin konparatzen nuen, baina denborarekin ikasi dut toki bakoitzak dituen alde onekin gozatzen.

Buelta asko eman ditut, eta asko ikasi dut talde bakoitzean. Kirolak eskaini didan onena da, leku eta jende asko ezagutzea, turismoaz harago.

### Krisi ekonomikoaren garairik okerreanean, denetarik bizi izango zenuen.

2007-2008ra arte, nomina onak eduki nituen. Orduan hasi ziren betetzen ez ziren akordioak, salaketak etab. Hiru talde salatu behar izan ditut, eta hiruetan auzitegiek nire alde egin dute. Nominak dira, azkenean, sinatutako kontratuak. Esan beharra dago, dena den, Asobal Liga asko saneatu dela.

### Urte betez bueltatu zinen Irunera, Bidasoaren jaitzieraren urtean, hain zuzen ere. Nola gogoratzen duzu?

Urte arraroa izan zen. Ez dut oroitzapen txarririk, eta harremana dut, oraindik, garaiko jokalaria batzuekin. Zorionez, merezi duen lekura bueltatu da Bidasoa. Historiagatik, eta klubak azken urteotan egin duen lan onagatik.

### Irunera itzultzeko gogoia eduki izan duzu beti?

Hala da, 1998an irten nintzenetik, ia urtero deitzen nuen, bueltatzeko aukerarik ba ote zegoen galdetzeko. Azkenean aurtengoa izan da uena. Azken ahaleginak Irunen egin nahi nituzke, Bidasoaren elastikoa defendatuz.

### Eskubaloi asko geratzen zaizu?

Ez dut esango zenbat urte izan daitezkeen. Momentuz ez dut inoiz lesio larririk izan, ezta ebakuntzarik ere. Entrenatzaile batek kontrakoa esaten didan arte, eskubaloiaren jokatzeko indarra dudala uste dut.

### 1998az geroztik ikaragarri aldatu da Asobal Liga. Zein izan da haren bilakaera?

Lehen, jokalaria altuagoak eta sendagoak ziren. Eskubaloia fisikoagoa zen orduan. Bidasoarekin Europako Txapelaldun izan zen taldea gogoratzea besterik ez dago.

Orain jokoa biziagoa eta arinagoa da, ikusgarriagoa, agian. Egia da, krisiaren eraginez, jokalaria onenak Europako beste ligetara joan direla, baina irudipena daukat, oso-osoa poliki, baina errekupezioa hasia dela.

### Fitxaketa gutxi egin ditu Bidasoak aurtan. Hortaz, joan den urteko taldea izango da oinarri nagusia. Positiboa al da hori?

Esango nuke baietz. Entrenatzailea eta sistema ere berdina dira, eta ikusten dut asko dagoela joan den urtetik egina. Lateral berriek dute lan gehien (Rodrigo Salinas eta Leo Renaud), nik ezagutzen baitut Jacobo Cuétarak eskatuko didana. Ondo ikusten dut taldea, baikorra naiz.

### Bidasoak goranzko joerari utsiko diola pentsa daiteke?

Bai, klubak oinarri sendoak ditu, eta kirol arloan, Jacobo Cuétarak esperientzia du klubaren hazkundean. Bestalde, Irunen eskubaloi giro handia dago. Zaleei ilusioa kutsatzen baldin badiegu, gora egingo dugu denok elkarrekin.

### Ondo ezagutzen duzu Jacobo Cuétara. Zein dira bere ezaugarri nagusiak?

Oso langilea eta zorrotza da, gain-gaiean egoten da beti, dena kontrolatzea atsegin du. Irunen gustura eta pozik ikusten dut, gainera. Berez nahiko serioa eta isila da, eta hemen solteago ikusten dut.

### Aldagela ere zeharo ezberdina izango da, 1990eko hamarkadako Bidasoarekin alderatuta.

Oso polita da hori. Gaur egun hiruzpalau atzeritar besterik ez dira egoten taldeetan, eta horrek giro atsegina sortzen du. Denon arteko batasuna handiagoa da, ez dira talde txikiak egiten, garai batean bezala.



# bideosare

*Bideoak zure erara!*



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com







## Txirrindularitza profesionala, gertu-gertutik

Caja Rural-Seguros RGA taldeko auxiliarra da Jon Urtizberea

**Hondarribiko aireportuko sarrerara iritsi aurretik, bada zuzengune luze bat, N-638 errepedearen eskuin aldean geratzen dena. Zenbait kamioi egoten dira aparkatuta, normalean. Gaur, ordea, autobus zuri-berde bat dago, Caja Rural eta Seguros RGA marken publizitatea daramana. Profesional Continental mailako txirrindularitza taldearen ibilgailua da. Barruan, Jon Urtizberea irundarra dabil, zabor poltsa biltzen. Auxiliari lanetan ibili da aurtan, eta taldearen egutegiko lasterketa nagusietan izan da, Frantzian, Italian, Portugalen edo Norvegian, adibidez. Euskal Herriko Itzulia eta Espainiako Vuelta ere ezagutu ditu, barrubarrutik.**

Autobus arrunta dirudi, kanpotik. Eskaileratxoak igo eta barrura sartu bezain pronto, ordea, antzematen da ez dela ohiko ibilgailua. Eserleku gutxi ditu, baina dotoreak eta erosoak dira. Komunak ditu, baina baita sukaldea eta dutxak ere. "Hemen denbora luzez bizi zaitezke, karabana handi baten modukoa da", baieztatu du Jon Urtizberea. Zintzo ari da, izan ere, ia etxean baino denbora gehiago pasa du aurtan autobusean. Lehen aldiz aritu da Caja Rural taldean, auxiliari lanetan. Autobusa gidatzea eta garbi mantentzea izan da bere lan nagusia. Baina masajista ere bada: "Bi masaje ematen ditut lasterketa bakoitzean. Beste masajistek baino bat gutxiago, autobusak duen lanagatik".

Bost-sei auxiliarreko lan talde finkoa du Caja Ruralek. Gero, badira txandaka ibili diren beste batzuk ere. Guztira, hamar auxiliari inguru, mekanikoak eta masajistak kontuan hartuta. "Lasterketetara joaten ez den jendea ere badago, prentsakoak, material arduradunak etab. Iruñeko egoitzatik egiten dute lan", azaldu du Urtizberea. Hori, Caja Ruralen mailako talde xume batean. Talde handienetan, Sky batean, adibidez, lasterketetan hogeitau auxiliari baino gehiago izan daitezkeela adierazi du Jon Urtizberea: "Guk auto-

busa eramaten dugu, baina haiek bi kamioi eta kotxe pila bat".

**"Korrika ibili behar izaten da gauzak konpontzeko, egun bate-tik bestera"**

**Zein esperientziarekin geldituko zinateke?**

"Espainiako Vueltarekin, agian. Egun asko izan dira etxetik kanpo, baina gustura ibili naiz, egia esan. Laburra egiten dela ere esango nuke, lehen astea kenduta. Prologoa baino lehen, lau bat egun pasa genituen leku berean, mugitu gabe. Hori kontuan hartuta, eta lehenengo atsedean egunera arte, bederatzi egun dira, eta luzea egiten da. Baina gero, beste bi asteak, oso azkar pasa zitzaizkidan. Euskal Herriko Itzulia ere polita izan zen, etxean izanagatik, hain zuzen ere".

Auxiliarren arteko giro ona azpimarratu du Jon Urtizberea, baita beste taldeetako batzuekin izan dutena ere. Esperientzia okerrenak, autobusak eman dizkion arazoekin lotutakoak dira: "Autobusa eramatea gustatzen zait, baina dutxak direla, edo argia dela, estra asko dituzte, eta arrunta da zerbaitek huts egitea. Atzerrian tailerrak bilatzea, denborarik gabe, ez da erraza izaten. Korrika ibili behar izaten da gauzak konpontzeko, egun batetik bestera". Errepidez egindako bidaia luzeak ere aipatzekoak dira. Txirrindulariak hegazkinez joaten dira lasterketa gehienetara. Auxiliarrak, aldiz, autobusean.

Kirol arloan, Caja Ruralek ez du garaipen handirik eskuratu. Dena den, talde lehia-korra izan da, beste behin ere. Eta hori da, hain zuzen ere, txirrindulariei eskatzen dietena: "Garaipenak oso garesti daude. Auzoan irabaztea ere zaila da. Beraz, gerra ematea izaten da helburua, eta alde horretatik, pozik gaude". Aurtengo txirrindularitza sasoiaren orokorrean, polita izan dela uste du: "Lasterketa ikusgarriak egon dira. Chris Froome lana nabarmenduko nuke, Tourra eta Vuelta urte berean irabaztea ez dagoelako edonoren esku. Egia da sekulako taldea duela ondoan, baina hiru asteko bi itzuli jarraian irabazteko, maila handia eduki behar da".

**Txirrindulari ere izan zinen, eta ondo ibili zinen afizionatuetan. Ez zenuen profesionaletaraz jautsi emateko aukerarik izan?**

"Oso zaila da saltoa ematea, jende asko dagoelako ondo ibiltzen dena. Zortea behar izaten da, eta kontaktuak ere oso

garrantzitsuak dira. Gertuko taldeak edukitzeak ere laguntzen du, eta lehen bakarra zegoen. Orain, Muriasekin, Euskadi Fundazioarekin, Cajarekin... Aukera gehiago daude".

**Bizikleta utzi zenuenean, txirrindularitzari lotuta jarraitzeko asmoa zenuen?**

"Nahiko nazkatuta bukatu nuen, egia esan. Baina onartu beharra dut, bizikleta alde batera utzi eta segituan sartu zitzaizkidan berriro ibiltzeko gogoak. Masajista hasi nintzen Frantziako talde batean, afizionatuetan. Ondoren Muriasekin ibili nintzen iaz, eta Caja Ruralen aurtan".

**"Garaipenak oso garesti daude, gerra ematea izaten da gure helburua"**

Txirrindularitzaren munduan berriro murgilduta, momentuz, aurrera jarraitzea da Jon Urtizberearen asmoa. Caja Ruralen ariko da hurrengo denboraldian ere. Nekatuta dago momentu honetan, eta azken lasterketa falta zaio oraindik, beste edozein baino urrunago gainera, Txinako errepedeetan. Baina gero atsedena hartuko du, eta urtarrilean bueltatuko da, Caja Ruralen lehen kontzentrazioarekin, 2018ko txirrindularitza sasoiari indarrez ekiteko gogoz.

# Iturendik Mendaurrera, aztarna megalitikoetatik



## GORKA MARTINEZ

[unpaisenmimochila.blogspot.com](http://unpaisenmimochila.blogspot.com)

**Denbora:** 4 ordu eta erdi (geldialdirik gabe).

**Tontorrak:** Mendaur (1.131m).

**Zailtasuna:** Ertaina. Ez du zailtasun tekniko berezirik, baina desnibel positiboa handia da, amaiera aldera, batez ere.



Ezkurra eta Bidasoa ibaien artean, Mendaur mendiaren silueta nabarmentzen da (1.331). Igoera gogorra da, edozein aldetatik hasita ere, 1.000 m-ko desnibel positiboa gainditu beharra baitago. Zenbait puntutatik abia daiteke, hain zuzen ere: Arantza, Sunbilla, Aurtitz, Ituren... Bada bide bat, menhirrak eta dolmenak ikusteko aukera ematen duena.

Iturengo herritik irtengo gara. Udaletxea atzean utzita, San Martin elizara garamatzen bidea hartuko dugu. Bertatik, pista eroso bat jarraituko dugu, Aurtitz auzoraino (25'). Ur-hodi batzuen ondotik mendian gora doan bidexka hartuko dugu, ur-gordailuraino iristeko (ordu bete). Zementuzko pista hartuko dugu han. Iruñagako menhirra eta Baikuntzeko Etxola dolmena ikusiko ditugu bidean, basoan sartu aurretik. Bat-batean, Mendaurreko urtegia topatuko dugu (2 ordu).

Urtegia inguratuta, GR bidea aurkituko dugu. Malda gogor batean gora, ia tontorreraino eramango gaitu. Arroka handien inguruan egingo dugu azken tartea, Trinitate ermitaraino eramango gaituzten eskaileretara iritsi arte. Mendaur mendiaren gailurrean dago ermita (1.331m).

Jaisteko, beste bide bat hartuko dugu, bi arroka handiren arteko pasabide batean hasten dena. Pagadi bat zeharkatuko du bideak. Borda bat eta Aizturra dolmena aurkituko ditugu bidexkaren amaieran. Aizturrako lepoa, Goiko Borda Ipar eta Goiko Borda Hego dolmenak topatuko ditugu ondoren, baserri baterara ailegatu baino lehen. Zementuzko pistan sartuko gara, eta Epeintzako kaskoa eta Garatama dolmenak ikusiko ditugu, Iturenera iritsi aurretik (4 ordu eta erdi). Ibilbide biribil gogor bezain ederra izan da.

# Txingudi Ikastola HH

BAI EUSKARARI" BIXERAK



Euskararen eguna ospatzeko bixera dotore-dotoreak egin genituen Txingudi ikastolako Haur hezkuntzako ikasleok .

# Euzkaraz, Irunen barrena

## Irungo La Salle DBH1

### Don Bizentiko

Apona apona, si  
Apona apona eder  
Pin Pon  
Don Bizente, pon  
Nipiti-napata  
Tokala kaza  
Polita txoriyan  
Kalabaza

Hurak txapelakin jostatzeko kanta.

S.R.A andereari jaso (1959-VII-24).  
(El Bidasoa, 1959-IX-26)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga  
Euskaraz, Irunen barrena

### Bartzelona eta Familia Sainduaren tenplua

Egon al zarete noizbait Bartzelonan? Eta Familia Sainduaren tenpluan? Berrura sartu al zarete? Bere historia ezagutzen al duzue?

Bartzelonako hiria Katalunian dago. Espainiako bigarren hiri garrantzitsuenak da eta 1,6 milioi biztanle (2016) ditu. Europako hiri populatuenean artean dago, 11 postuan. Auzo ugari dauzka, adibidez: *Barceloneta*, *Ranblak*, *Montjuik* eta beste asko, baina handia izateaz gain zaharra ere bada. Itxura denez, Neolito garaikoak dira bertan topatu diren aztarna zaharrenak.

Mediterraneo itsasoaren bazterrean kokatuta dago eta bertako klima mediterraneoak da: Neguak epelak, eta udak beroak eta lehorrak izaten dira. Ibai asko ditu baina garrantzitsuenak *Llobregat* eta *Besós* ibaiak dira.

Bartzelonan bazaude ez zara aspertuko, bertan eta inguruan gauza ikusgarri ugari dituzu ikusi eta bisitatzeko: Garaipen Arkua, Güel Parkea, Batlló etxea, Port Aventura, Camp Nou, Familia Sainduaren tenplua etab.



### Familia Sainduaren Tenplua:

Antonio Gaudi arkitektoak diseinatu zuen, 1882. urtean hasi ziren katedral modernista hau eraikitzen, eta gaur egun, oraindik, amaitu gabe dago. Harea antzeko harriaz eta granitoz eginda dago. Leihoak kolore biziko beiraz estalita daude eta eguzkiak jotzen duenean barrualdea kolorez betetzen da. Lanak amaitzen direnean tenpluak 18 dorre izango ditu eta kanpoko aldetik hareazko gaztelu baten itxura izango du.



Gaur egun, Europan gehien bisitatzen den monumentuetako bat da Familia Sainduaren tenplua. Esaten dutenez, 2014. urtean 3 milioitik gora sarrera saldu zituzten.

Ikusten duzuen bezala, Bartzelona hiria eta bere ingurua oso polita eta interesgarria da. Bertako biztanleak ere jatorrak eta atseginak dira. Beraz, bertara joaten bazarete, itsasoko hiri zoragarri honetan opor ezin hobekak igarotzeko aukera izango duzue. Hala ere, agian, komeni da 2026 urtera arte itxarotzea, orduantxe amaituko baitituzte Famili Sainduaren tenpluko lanak!

Egileak: Miren G., June C., Elia E. eta Maddi B. Irungo La Salle (1.DBH).



- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

[www.kineesis.net](http://www.kineesis.net) [www.k-stretch.com](http://www.k-stretch.com)

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN, 943 626 983 - 606 298 640



# Gazte Boluntariotza Zerbitzua prestatu du udalak

Hiriko elkarten eta gazteen arteko lotura lana egitea du helburu

Gaur egun elkarte gehienek azpimarratzen duten errealitatea da boluntario falta. Duela bizpahiru hamarkada, gazteen inplikazioa handiagoa zela baieztatu ohi dute. Aitzitik, gazteak atzerrian kooperante aritzeko irrikaz egoten dira. "Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Gazteak Lankidetzan egitasmoan, adibidez, handia izan da irundarren kopurua, parte hartzaileen artean", adierazi du Josune Gomez Gazteria arloko ordezkariak. Atzerrian aritzeko prest egoten dira, beraz, baina tokian-tokiko elkarteetan, ez dira inplikatzeko. Parte hartze hori sustatzeko asmoz, Irungo Udalak Gazte Boluntariotza zerbitzua jarri du martxan.

16-30 urte arteko gazteei zuzendutako zerbitzua da, tokian-tokiko elkarteetan parte hartzera bultzatzeko helburua duena. Hezkide Eskola Donostiako elizbarrutiaren elkarteak kudeatuko du Gazte Boluntariotza Zerbitzua. Astelehen eta astearte arratsaldetan (16:00-20:00), eta ostiral goizetan (10:00-14:00), CBAko Gazte Informazio Bulegoan egongo da Eva Sanchez irundarra, interesa duten gazteei elkarten inguruko informazioa emateko. Galdera erretorikoa luzatu du Sanchezek: "531 elkarte daude Irunen zenbatuta. Horietako zenbat ezagutzen ditugu gazteok?"

Elkarten eta gazteen arteko loturak eraikitzen ahaleginduko dira, beraz, zerbitzuan. Hezkide Eskolako Rakel Alvarezek azalpen bat eman dio gaur egun gertatu ohi den deskonexioari: "Elkarteak haien eguneroko lanean murgilduta egoten dira, eta ezin izaten dira jendearen bila ibili, haien beharren berri ematen. Gaztea zarenean, kosta egiten zaizu ikustea zein behar dagoen. Unibertsitatea dela, lana dela, mila gauza edukitzen dituzu, eta inor ez bada zugana iristen, zaila da informazioa jasotzea". Zubi lana egingo du, beraz, Irungo Udalaren Gazte Boluntariotza zerbitzuak.

Helburu horrekin, bulegoan informazioa eskaintzeaz gainera, ekintza bereziak antolatuko dituzte. Eva Sanchezek azaldu ditu horietako batzuk: "Elkarteekin hitz egiten ari gara, haiengana gerturatu eta bisitak egiteko, edo tailerrak, mahai-inguruak eta azokak antolatzeko". Printzipioz, abendura arte martxan egongo da zerbitzua. "2018ko aurrekontuetan programa honen jarraipena eskatu dugu, baina hor niri tokatuko zait aldarrikatzea. Gazteria arloan, oso garrantzitsua iruditzen zaigu", azpimarratu du Josune Gomezek. Gogorarazi du, atzerriara begira, Irungo Udalak elkar-trukeak antolatzen dituela, Europako herrialde ezberdinekin, Erasmus + programaren bidez.

**"531 elkarte daude Irunen,  
horietako zenbat ezagutzen  
ditugu gazteok?"**

Eva Sanchez, zerbitzuko arduraduna



## Martxan da Martindozenea Gaztelekuaren ikasturtea

Aisialdirako aukera zabala eskainiko du Martindozenea Gaztelekuak, urrian hasita, ztailera arte. Txiribuelta elkarteak kudeatuko du, aurten, bertako jarduerak. Bi adin tarteri zuzendutako ekintzak prestatu dituzte: 12-17 urte arteko nerabeena, alde batetik, eta 18-25 urte arteko gazteena, bestetik. "Adinen ezaugarrien arabera, gure egitasmoak egokituko ditugu hezitzaileok eta begiraleok", azaldu du Ana Calvo arduradunak. Berak burutuko ditu koordinazio lanak, baina lau langile ariko dira gaztelekuak.

Hiriko elkarteengana eta gazteengana hurbiltzeko lanean, kontaktuak finkatzen ari dira adierazi du Calvok: "Guretzat garrantzitsua da gazteentzat erreferentziazkoa izango den errekurtsioa eta zerbitzua izatea, eta gazteen nahi, desio eta gogoei erantzutea. Aisialdi alternatibo, sozio-hezitzaile, sortzaile eta parte hartzaile bat eratzea, gazteekin". Jabetuta daude difusioak duen garrantziaz. Facebooken eta Instagramen presente daude, eta ikastetxetara gerturatu dira, adibidez.

Tailerrak, erakusketak edo kontzertuak antolatuko dituzte Martindozenea Gaztelekuak. Aurreko urteetako arrakastaren ondoren, irteera bereziak egingo dituzte, surfa edo skia egitera. Edonola ere, Ana Calvok nabarmendu du gaztelekuak topagunea izan dadin nahi dutela: "Gela ezberdinak ditugu, txoko goxoa, ordenagailu gela, jolas gela. Bide

batez, aprobetxatu esateko hirian dauden gazteek eta elkarteek dituzten proposamenetara irekita gaudela. Hurbil daitezela eta proposa dezatela, ikusiko dugu zer egin dezakegun, saiatuko gara aurrera eramaten".





# Irungo Gazte Boluntariotza Zerbitzua

## Ba al dakizu zenbat aukera ditzuzun?

- Adineko pertsonekin.
- Kultur artekotasuna eta inmigrazioa arloan.
- Adin txikikoekin.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonekin.
- Gaixotasunaren arloan.
- Bazterkeria egoeran (edo arriskuan) dauden pertsonekin.
- Garapenerako lankidetzan.
- Ingurumenaren arloan.
- Babes zibila / Larrialdiak.



### Ordutegia:

Astelehen, asteazken eta ostiraletan:  
16:30etatik 19:00etara.

Astearte eta ostegunetan: 09:00etatik  
14:00etara.

Irungo Gazte Boluntariotza Zerbitzua  
CBA gunea, San Juan plaza, z/g  
(IGazte) - gazteboluntariotza@irun.org -  
Telefonoa: 943 505 440.

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)
- Webean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## XX. Enpleguaren Astea

Edizio honetan, sarrera librea izango da azoka osoan; ez da aurretik izenik eman behar.

- Jardunaldian, sarrera libreko 20 enpresa egongo dira, eta haietan, interesdunek jakin ahal izango dute zein profil eskatzen diren eta zein zerbitzu eskaintzen diren enplegua bilatzeko. Enpresek hautagaitzak jaso eta elkarrizketa pertsonalak egingo dituzte.

- Edizio honetan, 10 prestakuntza zentro ere izango ditugu, eta informazioa jaso ahal izango duzu, eskualdeko enplegurako zer prestakuntza proposamen dauzkaten jakiteko.

- Gainera, LinkedIn gune bat eskaintzen dugu, sare sozial profesional handiena; bertan, aholkatu egingo dizugu zure helburu profesionalak lor ditzazun.

- Aurretik, eskatutako profila eta bertaratu diren enpresa eta entitateak El Espazioaren ([www.lespazio.com](http://www.lespazio.com)) web gunean argitaratuko dira urriaren 17an, 10:00etan, ekitaldia egiten den egunera arte.

**Noiz:** Urriak 26.

**Ordutegia:** 09:00-14:00.

**Non:** Ficoban.

**Prezioa:** doan.

**Antolatzailea:** Bidasoa bizirik.

## Kamiseta bat diseinatu eta irabazi bigaia bat European zehar!

Time to Move 2018 kanpainaren kamiseta ofiziala diseinatzeko lehiaketan parte hartu eta bidaiatzen hasteko sariak irabaz itzazu!

Time to Move Gazteen Nazioarteko Mugikortasuna sustatzeko kanpaina bat da, Europa osotik ekitaldiak antolatzen dituena.

Diseinu kreatibo, interesgarri eta inspiratzaileenak kontutan hartuko dira, kanpainaren oinarriak irudikatzen dituztenak.

**Betebeharrak:** 13-30 urte edukitzea.

**Teknika:** Librea.

**Sariak:**

- 1. go saria: Interrail Pass (Interrail txartela).
- 2. Saria: Eastpack eskuko mailetak.
- 3. Saria: 6 hilabeteko harpidetza Spotify-n.
- 4. Saria (bozketa publikoa): Fjällräven motxila.







**Epea:** Urriak 31.

**Informazio gehiago:**  
[www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte).

**EKAR** teleinmobiliaria

Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN ☎ +34 669 408 705  
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

### PRIMERAKO AUKERAK

 <b>Pisua salgai Irún Alde Zaharra</b> Azalera 50 m <sup>2</sup> , 2 gela, salmagailu, eguzki-eremua, hanturren, teilatu, ingurumenak, oso argiak. 75.000 €	 <b>Pisua salgai Tein Larramendi</b> Azalera 35 m <sup>2</sup> , 2 gela, salmagailu, eguzki-eremua, gar-bendaketa, 2 baloi, trasteroak, ingurumenak, oso argiak. 127.000 €	 <b>Pisua salgai Irún Aizkal-Portu</b> Azalera 75 m <sup>2</sup> , 3 gela, salmagailu, eguzki-eremua, terraza, berrota eta txapela. 139.000 €
 <b>Pisua salgai Irún San Juan</b> Azalera 100 m <sup>2</sup> , 3 gela, salmagailu, eguzki-eremua, terraza, berrota, ingurumenak, oso argiak. 145.000 €	 <b>Pisua salgai Irún Aizkal-Portu</b> Azalera 47 m <sup>2</sup> , 3 gela, salmagailu, eguzki-eremua, terraza, ingurumenak, oso argiak. 170.000 €	 <b>Pisua salgai Irún Dombia</b> Azalera 37 m <sup>2</sup> , 3 gela, salmagailu, eguzki-eremua, terraza, ingurumenak, oso argiak. 240.000 €
 <b>Pisua salgai Irún Kelen</b> Azalera 110 m <sup>2</sup> , 3 gela, salmagailu, eguzki-eremua, gar-bendaketa, terraza, ingurumenak, oso argiak. 310.000 €	 <b>Etxea salgai Mendola</b> Azalera 116 m <sup>2</sup> , 3 gela, salmagailu, eguzki-eremua, terraza, ingurumenak, oso argiak. 299.000 €	 <b>Etxea salgai Irún Ventas</b> Azalera 200 m <sup>2</sup> , 4 gela, salmagailu, eguzki-eremua, terraza, ingurumenak, oso argiak. 407.000 €

**"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK LASAITASUN OSOZ, KONTSULTATU!!**



# Urriak

## 18

**Liburu aurkezpena:** "El Madrid de Blas de Otero"

**Aurkezlea:**  
Jose Andres Alvaro.

**Non:**  
CBA Udal Liburutegia.

**Telefonoa:**  
943 50 54 21.

**Prezioak:**  
Doan.

**Webgunea:**  
www.irun.org.

## 18

**"Irun emakumeon hiria" proiektua**

**Zer:**  
Hiritar ororentzako lan saio parte-hartzailea, bereziki emakumeentzako segurtasun eta irisgarritasun gutxien duten gu-  
neak eta egoerak identifikatzeko.

**Ordua:** 18:00.  
**Non:** Argoiak.  
Uztapide bertsolaria, 6.

**Antolatzailea:**  
Argoiak.

**Prezioa:** Doan.

## 20

**Kontzertu akustikoa "HOWDY (COUNTRY / FOLK)"**

**Non:**  
Irungo Kale Nagusian.

**Ordua:**  
20:00etan.

**Prezioa:**  
Doan.



## 20-21-22

**#MEKFEST JAIALDIA**

**Zer:** talde berriei, artista kontsaktuekin kartela eta esperientziak partekatzeko aukera emateko prestatutako eta pentsatutako jaialdia da. Era berean, egungo eszenako hainbat talderen lanaz gozatzeko aukera eskaintzen du.

**Egitaraua:**

**Ostirala:** Beñat Igerabide, Perlak.

**Larunbata:** Sunset Sons, Iseo & Dodosound, Niña Coyote Eta Chico Tornado, Anai, Atazal, Artie Escolar Dj, A. Gaultier Dj, Boreal, Billie Balloon, Capitan Tortuga, Cotton Perle Dj, Höpper, June Calsor, Ingravitö, Indidxak, Jonyg-Music Dj, Latitud 43, Larregi, Marban, Noga, Nothing Box, Oier Mendizabal Dj, Roadhouse, Rus-hblack- Ka, Stonefaces, Slowmo, Sara Zozaya, Silhouet, Sky Man Dj, Sin Mala Intención, The Icer Company.

**Igandea:** Luma, Grande Days.

**Non:** Urdanibia plazan.

**Prezioa:** Doan.

## urriak 22 arte azarook 22 arte

**"Mariatxo Arrimendi" Margo erakusketa**

**Zer:** Mariatxo Arrimendiren hil osteko erakusketa. Bildutako dirua Pasionisten Parrokiako taldeentzat izango da.

**Ordutegia:**  
Astelehenerik ostiralera:  
17:00-21:00 / Larunbatak:  
11:00-13:00 eta  
17:00-20:00.

**Non:**  
Laboral Kutxa  
Colon pasalekua, 13.

**Prezioa:** Doan.

**"A fuego lento" argazki erakusketa**

**Egilea:**  
Alvaro Del Val Tobalina.

**Non:** Caser Residencial Anaka.

**Ordutegia:**  
Astelehenerik ostiralera:  
8:00-20:00; Larunbatak,  
igandeak eta jai egunak:  
10:00-20:00.

**Telefonoa:**  
943667780.

**Prezioa:** Doan.

# Minbiziaren aurkako hilabetea da Caserren

Zakutxo termiko solidarioak salduko dituzte, eta informazio puntua jarriko dute



Konpromiso irmoa du Caser Residencialek minbiziari aurre egiteko lanarekin. Harreman estua du arlo horretan lanean ari diren zenbait erakunderekin. Hilabete bukaerara arte, esaterako, zakutxo termiko solidarioak salduko dituzte Caser Anakan, hamalau euroren truke. Bildutako diru guztia, LINCECI haurren minbiziaren eta pobreziaaren aurkako elkartearen esku jarriko dute. Bestalde, AECC minbiziaren kontrako elkartearen eskutik, informazio postua jarriko dute egoitzan.

AECCrekin elkarlanean, hain zuzen ere, bi hitzaldi antolatu ditu Caserrek Irunen, koloneko eta larruazaleko minbiziei buruz. "Minbizia eta elikadura heldu aroan" izenburua eduki zuen lehenengoak, eta Gorka

Gil AECCko psikologoak, Javi Alonso Caser Anakako sukaldariak eta Roger Ramos koordinatzaile asistentzialak parte hartu zuten. Apirilaren 6an izan zen.

Bigarren hitzaldiari, "Eguzkiaren inguruko kondairak eta mitoak" izenburua jarri zioten, eta Gorka Gil AECCko psikologoa izan zen bertan, egoitzako beste zenbait profesionalekin batera. Uztailaren 17an izan zen bigarren hitzaldi hori. Oraingoan, zakutxo termiko solidarioekin eta informazio postuarekin, minbiziaren kontrako kontzientziaztea sustatuko du Caserrek beste behin ere.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN  
ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak  
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM